

**TOKI ADMINISTRAZIOA**

3

**ADMINISTRACIÓN LOCAL****ZARAUZKO UDALA**

*10-2 Area –Salberdin– Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketa. Behin Betiko Onespena.*

2015eko uztailaren 6an, Zarauzko Udalaren Alkate-Lehendakariak, ondoren laburbilduta adieraziko den erabakia hartu zuen:

*Lehenengoa.* Aurkeztutako alegazioei erantzuna ematea, idatzi diren txosten hauen arabera: UJP aldatzeko dokumentua idatzi zuen taldearena (2015eko apirillean) eta Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuarena (apirilaren 23ko 0317/2015 txostena).

*Bigarrena.* Behin betiko onespena ematea programa hau aldatzeko proiektuari: Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 10-2 area –or salberdin– urbanizatzeko jarduketa-programa, Zarauzko Udalak sustatua. Onartu den dokumentua hasierako onspena jaso zuen bera da (2014ko urriko dokumentua) erantsi zaion 2015eko ekaineko dokumentu gehigarrian –Eranskina– jasotako aldaketarekin. Hitzarmen-sistema ezarri da jarduketa- sistema legez (egikaritze pribatuko araubidea).

Hirigintzako exekuzioari buruzko datuak.

Sailkapena: Hiri lurzoru finkatu gabea.

Hirigintza-eraikigarritasuna (eraikitako m<sup>2</sup> sestra gainetik): 102.000 m<sup>2</sup>.

– Etxebizitza erabilera: 90.500 m<sup>2</sup> (goi solairuetan).

\* Etxebizitza librea: 47.500 m<sup>2</sup>.

\* Babes publikoko etxebizitza: 43.000 m<sup>2</sup>.

– Hirugarren sektoreko erabilera: 12.000 m<sup>2</sup> (behe solairua).

Jarduketa Sistema: Hitzarmen sistema.

Urbanizazio gastuen aurrekontua: 30.870.802,49 €.

Urbanizazio obren gauzate-aurrekontua kontrataren bidez: 20.808.212,58 €.

Urbanizatzeko eta eraikuntza lanen egikaritze-programa: Lau fasetan gauzatzeko; guztira, 10 urte urbanizatzeko eta eraikitzeko, birpartzelazio proiektua behin betiko onartzen denetik.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 160. artikulua arabera, akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik bi hilabeteko epean, lurzoru jabetzaren %50 baino gehiago duten jabeek hitzarmena sinatu beharko dute Legeak exijitzen dituen konpromisoak euren gain hartzeko, eta Udalean aurkeztu beharko dute. Hitzarmen horrek arreta berezia eman beharko dio kutsatuak egon daitezkeen lursailak berroneratzea eta egokitzeari, kontuan izanda 2/2006 Legearen 147.3 artikulua dioena.

Honakoa eskatzen zaie berriro etorkizuneko birpartzelazioak eragingo dituen jabetza eta eskubideen titularrei: aipatu den 2 hilabeteko epe horretan gauzate-unitatearen barne dauden finken erregistroko datuak aurkez ditzatela eta euren finketan eragina duten egoera juridiko ezagunen berri eman dezatela Udalean.

**AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ**

*Modificación del Programa de Actuación Urbanizadora del área 10-2 Salberdin. Aprobación Definitiva.*

El 6 de julio de 2015, el Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zarautz adoptó el acuerdo de aprobación definitiva, del que se publica el siguiente extracto:

*Primero.* Dar respuesta a las alegaciones formuladas de conformidad con los informes del equipo redactor del documento de modificación del PAU (abril de 2015) y del servicio municipal de Urbanismo y Medio Ambiente (informe 0317/2015, de 23 de abril).

*Segundo.* Aprobar definitivamente el proyecto de modificación del programa de actuación urbanizadora del área 10-2 –or salberdin– del Plan General de Ordenación Urbana de Zarautz promovido por el Ayuntamiento de Zarautz. El documento aprobado es el mismo que fue aprobado inicialmente (documento de octubre de 2014) con la modificación recogida en el documento complementario –Addenda– de junio de 2015. Se establece como sistema de actuación el sistema de concertación (régimen de ejecución privada).

Datos relativos a la ejecución urbanística.

Clasificación: Suelo urbano no consolidado.

Edificabilidad urbanística (m<sup>2</sup> construidos sobre rasante): 102.000 m<sup>2</sup>.

– Uso de vivienda: 90.500 m<sup>2</sup> (plantas altas).

\* Vivienda libre: 47.500 m<sup>2</sup>.

\* Vivienda protección pública: 43.000 m<sup>2</sup>.

– Uso Terciario: 12.000 m<sup>2</sup> (planta baja).

Sistema de actuación: Concertación.

Presupuesto gastos de urbanización: 30.870.802,49 €.

Presupuesto ejecución por contrata obras de urbanización: 20.808.212,58 €.

Programa de ejecución de las obras de urbanización y edificación: A ejecutar en cuatro fases; 10 años en total, para urbanizar y edificar, desde la aprobación definitiva del proyecto de reparcelación.

De conformidad con lo previsto en el artículo 160 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo, en el plazo de dos meses desde la publicación del acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, los propietarios que representen más del 50% de la propiedad del suelo deberán suscribir un convenio en el que asuman los compromisos exigidos por la Ley y presentarlo en el Ayuntamiento. El convenio deberá dar atención especial a la recuperación y adecuación de los terrenos que puedan estar contaminados, teniendo en cuenta lo previsto en el artículo 147.3 de la Ley 2/2006.

Se solicita nuevamente a las personas propietarias y titulares de derechos afectadas por la futura reparcelación que, en el citado plazo de 2 meses, faciliten al Ayuntamiento los datos registrales de las fincas incluidas en la unidad de ejecución y declaren las situaciones jurídicas que conozcan y afecten a sus fincas.

Jendeak oro har jakin dezan argitara ematen dena ondoko argibidearekin: Administrazio-bideari amaiera ematen dion eta behin betikoa den erabaki honen aurka jarraian agertzen diren errekurtsuak aurkeztu ahal izango dira:

*berraztertze*ko errekurtsua: aukerazkoa: erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita. Errekurtsua aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsua onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

*administrazioarekiko auzi-errekurtsua*: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu jartzeari utzi gabe.

Zarautz, 2015eko uztailaren 9a.—Xabier Txurruka, alkatea.  
(6551)

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

*recurso de reposición*: con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde la publicación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

*recurso contencioso-administrativo*: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día de su publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administrativo; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Zarautz, a 9 de julio de 2015.—El alcalde, Xabier Txurruka.  
(6551)